



**KODE ETIKO ETA JOKABIDEZKOA, EUSKO JAURLARITZAKO ENPLEGU ETA  
GIZARTE POLITIKETAKO SAILARI ATXIKITAKO ENPLEGU ETA  
GIZARTERATZE ZUZENDARITZARENA ETA LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU  
ZERBITZUARENA, BIAK ERE EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2014-2020  
ALDIRAKO EUROPAKO GIZARTE FUNTSAREN PROGRAMA ERAGILEAREN  
BITARTEKO ERAKUNDEAK**

## **SARRERA**

Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 aldirako Europako Gizarte Funtsaren Programa Eragilearen Bitarteko Erakundearen arduradunak diren aldetik, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendariak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendariak jendaurrean adierazten dute, adierazpen instituzional baten bidez, funts horren kudeaketan iruzurrarekiko eta ustelkeriarekiko zero tolerantzia politika izango dutela.

Bitarteko Erakunde biek badituzte prozedurak, iruzurraren aurkako neurri eraginkor eta proportzionatuak abian jartzeko, hautemandako arriskuak kontuan hartuta.

Prozedura horietan, iruzurra prebenitzeko neurrien barruan dago, besteak beste, EGIFen kudeaketaz eta kontrolaz arduratzen diren langileen artean iruzurrari buruzko Kode Etiko eta Jokabidezko bat dibulгатzea. Kode hau funtsezko baliabidea da Bitarteko Erakundeek iruzurraren gain dituzten balioak eta jokabide-ereduak jakinarazi eta helarazteko, bertan jasota baitago zer printzipiok gidatuta jardun behar duten Euskal Autonomia Erkidegoko enplegatu publikoek EGIFen kudeaketari, jarraipenari eta kontrolari dagokionez.

### ZERGATIK DA BEHARREZKOA KODE HAU?

- Erakunde bateko langileek erakunde horren baitan duten jokabideak eta etikak eragin zuzena duelako erakunde horren irudian.
- EGIFen kudeaketaz, jarraipenaz eta kontrolaz arduratzen diren pertsonen zer-nolako jokabidea izatea espero den argitzen eta mugatzen duelako.
- Gardentasunean, objektibotasunean eta zorrotasunean oinarritutako balio etiko batzuk definituak izateak lagundu egiten duelako Euskal Autonomia Erkidegoari buruz balio etiko horien araberako ikuspegia eta izen ona sortzen.
- EGIFen kudeaketarekin, jarraipenarekin eta kontrolarekin zerikusia duten langileak EAEko enplegatu publikoak direlako, eta alde horretatik, herritarren zerbitzura aritzeko jokabide eredugarria izatea eskatzen zaielako.

## **OINARRIZKO PRINTZIO ETIKOAK**

5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateragina onartzen duenak, zenbait printzipio etiko jasotzen ditu 52. artikulutik 54.era, eta EGIFen kudeaketaz, jarraipenaz eta kontrolaz arduratzen diren langileek, hain zuzen, bete egin behar dituzte beren eguneroko jardunean. Honela diote:

### VI. KAPITULUA

#### **Enplegatu publikoen eginbeharrak. Jokabide-kodea**

##### 52. artikulua. Enplegatu publikoen eginbeharrak. Jokabide-kodea.

Enplegatu publikoek arretaz bete beharko dituzte eman zaizkien zereginak eta interes orokorrak zaindu, betiere, Konstituzioari eta gainerako antolamendu juridikoari begiratuta eta haiei lotuta; printzipio hauek oinarri hartuta jardun beharko dute beti: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, isilpekotasuna, zerbitzu publikorako dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kultura-ingurunearen eta ingurumenaren sustapena, eta emakume eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua; horiexek dira enplegatu publikoen jokabide-kodearen abiaburu, ondorengo artikuluetan erregulatuko diren printzipio etikoak eta jokabide-printzipioak oinarri izanik.

Kapitulu honetan ezarrita dauden printzipioak eta arauak izango dira oinarri enplegatu publikoen diziplina-araubidea interpretatu eta aplikatzeko orduan.

##### 53. artikulua. Printzipio etikoak.

1. Enplegatu publikoek Konstituzioa eta ordenamendu juridikoa osatzen duten gainerako arauak errespetatuko dituzte.
2. Enplegatu publikoen jardunak herritarren interes orokorrak betetzea izango du xede eta inpartzialtasuna eta guztiontzako interesa lortzera doazen jarraibide objektiboak izango ditu oinarri, printzipio horren aurkakoak izan daitezkeen jokabide guztiak erabat alde batera utzita, pertsonalak, familiartekoak, korporaziokoak nahiz bezeroei dagozkienak izan.
3. Beren jarduna leialtasunaren eta fede onaren printzipioen arabera izango da, bai lanean diharduteneko administrazioarekin, baita nagusi, lankide, menpeko eta herritarrekin ere.
4. Enplegatu publikoen jokabideak oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen errespetua izango du oinarri, eta saihestu egingo ditu era guztietako bereizkeriak, jaiotza, arraza edo etnia, generoa, sexua edo orientazio sexuala, erlijioa edo sinesmenak, iritzia, desgaitasuna, adina edo bestelako egoera edo inguruabar pertsonal nahiz sozialak direla-eta sor litezkeenak.
5. Interes pertsonala duten gaietan abstenitu egingo dira eta, lanpostu publikoaren interesekiko gatazka ekartzeko arriskua izan badezakete, jardun pribatu eta gainerako interes guztietan ere bai.
6. Enplegatu publikoek, lanpostu publikoaren betebeharrakiko interes-gatazka sortzeko arriskua dagoenean, ez dute betebeharrak ekonomikorik hartuko, eta ez dute pertsona nahiz erakundeekin parte hartuko finantza-eragiketetan, ondarezko betebeharretan edo negozio juridikoetan.
7. Enplegatu publikoek ez dute pertsona fisiko nahiz erakunde pribatuengandik mesede-traturik onartuko, ezta arrazoirik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren egoerarik ere.

8. Eraginkortasun-, ekonomia- eta eragimen-printzipioen arabera jardungo dute; eta interes orokorraren alde joka dadin eta erakundearen helburuak bete daitezzen zainduko dute.
9. Enplegatu publikoek ezin dute, tartean bidezko arrazoirik izan gabe, administrazio-prozedurak edo tramiteak azkartzeko edo ebazteko eraginik izan; are gutxiago, horrek pribilegioa badakar kargu publikoetako titularren alde edo beren familiartekoen edo inguru sozialaren alde, edo kaltea badakar hirugarren batzuen interesen aurka.
10. Enplegatu publikoek arretaz beteko dituzte atazak, dagozkienak nahiz agindutakoak, eta, hala dagokienean, epe barruan ebatziko dituzte eskumenean dituzten prozedurak eta espedienteak.
11. Zerbitzu publikoaren aldeko dedikazio-printzipioari jarraituz beteko dituzte dagozkien eskuduntzak, eta saihestu egingo dituzte, printzipio horren aurkako jokabideez gain, zerbitzu publikoen jardunean zaindu beharreko neutraltasuna kolokan jar dezaketen jokabide guztiak.
12. Sekretupean gordeko dituzte sailkatuta dauden gaiak edo legez zabalkundea debekatuta dutenak, eta behar besteko zuhurtasunez jokatu dute beren kargua dela-eta dakizkiten gaiei buruz; eta eskuratu duten informazio hori ezin izango dute erabili ez beren mesederako, ez hirugarren batzuen erako, ezta interes publikoaren kalterako ere.

#### 54. artikulua. Jokabide-printzipioak.

1. Arretaz eta begirunez tratatuko dituzte herritarrak, beren nagusiak eta gainerako enplegatu publikoak ere.
2. Enplegatu publikoek, lanpostuari dagozkion atazak betetzerakoan, zuhurtasunez eta arretatsu jokatu dute, eta ezarritako lanaldia eta ordutegia beteko dute.
3. Nagusiek emandako jarraibide eta agindu profesionali men egin behar diete, argi eta garbi antolamendu juridikoaren aurkakoak ez badira behintzat; horrelakoetan, ikuskaritza-organo egokiei jakinarazi behar diete berehala horren berri.
4. Eskubidez jakin beharreko gaiei eta arloei buruzko informazioa emango diete herritarrei, eta laguntza emango diete beren eskubideak baliatu eta betebeharrak bete ditzaten.
5. Enplegatu publikoek baliabide eta ondasun publikoak austeritatez administratuko dituzte, eta ez dituzte erabiliko norberaren edo hurbilekoen mesederako. Baliabide eta ondasun horiek zaintzeko eginbeharra ere izango dute.
6. Ez da abantaila-egoera dakarren inolako oparirik, mesederik edo zerbitzurik onartuko, gizartean ohituraz eta kortesiaz ohi direnez aparte, betiere, Zigor Kodean ezarritakoari kalte egin gabe.
7. Dokumentuen ziurtasuna eta iraupena bermatuko dituzte, agiri horiek ondorengo arduradunei eman eta eskualdatu ahal izateko.
8. Eguneratuta izango dute beren prestakuntza eta kualifikazioa.
9. Laneko osasunari eta segurtasunari buruzko arauak beteko dituzte.
10. Beren nagusien edo organo eskudunen jakinaren gainean jarriko dituzte, zerbitzuan diharduteneko unitatearen eginkizunak hobeto betetzeko, beren ustez egoki diren proposamenak. Horretarako, enplegatu publikoek eta

herritarrek egindako proposamenak jasotzeko lana zentralizatzeko eskumena emanda, egoki iritzitako instantzia sortzeko aurreikuspena egin ahal izango da, zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzeko.

11. Herritarrari berak eskatutako hizkuntzan erantzungo zaiola bermatu behar dute, hizkuntza hori lurralde horretan ofiziala bada.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ezarritakoa gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 aldirako EGIF Programa Eragilearen eta Gazte Enplegurako Programa Eragilearen kudeaketarako, jarraipenerako eta/edo kontrolerako lanak egiten dituzten pertsonak bereziki begiratuko dute Kode Etiko eta Jokabidezko hau betetzea, EGIFekin batera finantzatutako proiektuak kudeatzeko prozeduraren fase eta alderdi hauetan:

1. Zorrotz beteko dira gai bakoitzean aplikagarriak diren legeak (Europar Batasunekoak, Estatukoak eta/edo EAEkoak), batik bat gai hauetan:
  - Gastuen hautagarritasuna.
  - Kontratazio publikoa.
  - Laguntzen erregimenak.
  - Informazioa eta publizitatea.
  - Ingurumena.
  - Aukera-berdintasuna eta bazterkeriarik eza.
2. EGIFekin batera finantzatutako eragiketa guztiek bat etorri beharko dute Eragiketak Hautatzeko Irizpideekin, Jarraipen Batzordeak onartuak.
3. EGIFen kudeaketarekin, jarraipenarekin eta kontrolarekin zerikusia duten enplegatu publikoek, beren eginkizunak betetzean, gardentasuna izango dute oinarri, eta printzipio horrek berekin dakar barne- nahiz kanpo-mailan jakitera ematen den informazio edo datu ororen tratamenduan eta hedapenean argitasunez eta egiazkotasunez jokatzeari.
 

Printzipio horri jarraituz, enplegatu publikoek arretaz erantzun beharko dute informazioa eskatzen zaienean, betiere arriskuan jarri gabe, inola ere ez, interes publikoagatik kontuz zaintzekotzat har daitekeen zernahi informazioaren segurtasuna.
4. Bereziki begiratuko da gardentasun-printzipioa betetzea, kasu hauetan:
  - EGIFekin batera finantzatutako laguntzak emateko prozesuen emaitzak jakitera ematen direnean.
  - Kontratazio-prozedurek dirauten bitartean.
5. Gardentasun-printzipioa betetzea ezin gerta daiteke kalterako informazioa isilpektoa denetan. Langileek behar bezala erabili beharko dute isilpekotzat hartutako informazio oro, hala nola datu pertsonalak eta enpresei nahiz bestelako erakundeei buruzko informazioa, eta ezin erabili ahalko dute norberaren edo hirugarrenen mesederako, ez inolako mesede-traturik lortzeko, ez interes publikoaren kaltetan.
6. Interes-gatazka dagoela ulertuko da, enplegatu publikoek EGIFekin zerikusia duten eginkizunak modu inpartzial eta objektiboan betetzea arriskuan egon litekeenean arrazoi familiar edo afektiboengatik, kidetasun politikoagatik, interes ekonomikoagatik edo beste edozein arrazoiengatik EGIFekin batera finantzatutako jardueren onuradunekin duten loturagatik.

Interes-gatazka sortzen da enplegatu publiko batek aukera izan dezakeenean bere interes pribatuak bere eginbehar profesionalen aurretik jartzekoa.

Bereziki zainduko da interes-gatazkarik ez sortzea "kontratazioa" eta "laguntza publikoen emakida" egiteko prozedurekin zerikusia duten enplegatu publikoetan, EGIFekin batera finantzatutako eragiketetan.

A) Kontratazio publikoa.

- Interes-gatazka egoteko arriskua identifikatzen bada, honela jokatu da:
  - Tartean dagoen pertsonarekin egitateak aztertuko dira, egoera argitzeko.
  - Pertsona hori kontratazio-prozeduratik kanpo utziko da.
  - Beharrezkoa bada, prozedura bertan behera utziko da.
- Benetan interes-gatazka egon bada, zehapen-gaietarako indarrean dagoen legedia aplikatuko da.

B) Laguntza publikoak.

- EGIFekin batera finantzatutako laguntzetan hautapen-, emakida- eta kontrol-prozesuetan parte hartzen duten enplegatu publikoek ez dute parte hartuko interes pertsonalak dituzten kontuetan.
- Benetan interes-gatazka gertatzen bada, zehapen-gaietarako indarrean dagoen legedia aplikatuko da.

### **KODEAREKIKO ERANTZUKIZUNAK**

EGIFekin batera finantzatutako eragiketen kudeaketarako, jarraipenerako eta/edo kontrolerako eginkizunak betetzen dituzten pertsona guztien erantzukizuna da Kode Etiko eta Jokabidezko honetako printzipioak ulertzea eta betetzea.

Edonola ere, komeni da erantzukizun espezifikoko batzuk zehaztea, profil profesionalen arabera.

#### Langile guztiak

Betebeharra dute:

- Kodean xedatutakoa irakurtzea eta betetzea.
- Kodearen berri ematen laguntzea, lan-ingurunean, kolaboratzaileei, hornitzaileei, laguntza teknikorako enpresei, laguntzen onuradunei eta EGIFekin lotutako gaietan EAEko Administrazioarekin aritzen den pertsona orori.

#### Zerbitzu arloko arduradunak

Aurrekoez gain, betebehar hauek ere badituzte:

- Kodeari buruz sor litezkeen zalantzak argitzen laguntzea.
- Kodea betetzeari dagokionez, eredu izatea.

#### Zuzendari nagusiak eta parekatuak

Langile guztiei eta Zerbitzu arloko arduradunei dagozkenez gain, hauen erantzukizuna da, halaber, EGIFekin zerikusia duten langile guztiek Kodea ezagut dezaten sustatzea, eta betebeharra dute Kodea bete dadin sustatzea eta Kodean agindutakoa betetzea.